

Urdaibaiko Biosferaren Erreserba

Mende laurdeneko ibilera herrena

25 urte dira Urdaibai Biosferaren Erreserba izendatu zutela, eta hogeit hura sostengatzen duen legea onartu zela Gasteizko Legebiltzarrean. Ez du ematen, baina, ospatzeko asko dagoenik. Biosferaren Erreserba garapen iraunkorrerako tresna bikaina da teorian, eta ezin ukatuzkoa da Urdaibairi mesede egin dionik praktikan ere, baina haren kudeaketan sortu diren itokinetatik itsasadar oso bat ari da ihes egiten.

UNAI BREA

DUELA URTE BATZUK gertatu zen. Ibaizabali buruzko erreportajea egiten ari ginen eta militante ekologista batek lagundu nahi zigun XIX. mendean Bilboko itsasadarrek zer itxura zeukan irudikatzen: “Imajinatu

Urdaibairen antzeko paisaia, baina eremu zabalagoan?”. Kontrako ariketa proposatuko dizuegu orain: imajinatu Ibaizabaleko zementu-orgia baina eremu txikiagoan. Bada, halakoxea izango litzateke Urdaibai

Sukarrietako txoko honetan eraiki gura du Bizkaiko Foru Aldundiak Guggenheim 2 delakoa. Gaur egun umeentzako udalekuak egiten dira Ricardo Bastida arkitektoak diseinatutako eraikinean, paraje natural ederrean.

LANDER ARBELAITZ



gaur egun, 70eko hamarkadaren hasieran Bizkaiko Aldundiak zituen asmoak gauzatu izan balira.

Alfonso Caño Gernikako Ekologia Lantaldeko kideak gogoratu du, ARGIArekin hizketan, mehatxu hura. Padura guztiak lehortu, etxeak barra-barra eraiki Oka itsasadarraren bazter bietan, kirol-porturen bat edo beste egin... Egitasmoa ez zuen kontzientzia ekologikoak bertan behera utzi, diru faltak baizik. Ez dago alde onik gabeko krisirik.

Frankismo osteko erakundeek ez zuten proiektu hura berpiztu, baina arriskua ez zen horregatik berehala desagertu. “80ko hamarkadaren hasieran petrolio findegi handi bat egiteko proiektua egon zen”, dio Cañok. Azkenik, 1984an UNESCOk Biosferaren Erreserba izendatu zuen Urdaibai, eta horri esker dauka inguruak gaur egun daukan itxura.

Eta itxuratik harago, zer? Findegirik ez dago, baina beste aje batzuk bai, erruz. Urdaibaiko Erreserbak Bizkaia osoaren %10 du hedaduraz, eta herrialdeko udalen %10ek (22k guztira) dute lur eremuren bat haren barruan. 45.000 biztanle inguru, gehienak nukleo bitan kontzentratuta: Bermeo eta Gernika. Bada, erreportaje hau Urdaibai bera bezain zabala suertatu liteke xehetasun osoz aztertuko bagenu talde ekologistek eta beste gizarte eragile batzuek Erreserbaren kudeaketari leporatzen dizkieten gaitz guztiak. Gune jakinen gainean jarriko dugu lupa, beraz.

Historia gogoratzen

Ohituraz naturaren kontserbazio hutsarekin lotzen dugu –izenak berak horixe iradokitzen du–, baina Biosferaren Erreserba askoz gehiago da edo izan behar luke, UNESCOk egiten duen definizioaren arabera: naturaren eta gizakiaren arteko harreman orekatua lortu nahi den gunea. Edo, gaur egungo hizkerara ekarrita, garapen iraunkorraren laborategi antzeko bat.

Busturialdeak bazituen horretarako baldintza egokiak: naturagune garrantzitsuak eta ondo kontserbatuak, eta aldi berean gizakiaren jarduera sektore guztietan, industria barne. Horrek ez du esan nahi beste eskualde batzuek antzeko ezaugarriak ez zeukate-



Hegazti migratzaile askoren ohiko geltokia da Urdaibai. Haiek babesten dituzten nazioarteko hitzarmenetan dago Urdaibai, baina babesa ez da beti erreala. Motordun txalupa ugari ibiltzen da Okako estuarioaren uretan, eta arau zehatzak errespetatu behar dituzte, abiadurari buruzkoak batez ere, hegaztiei enbarazurik ez egiteko. Ez da beti hala. Urdaibaiko Patronatuak zaintza zerbitzurik ez izateari leporatzen diote hori ekologistek.

nik, baina kontua da Busturialdeako hautagaitza aukeratu zuela UNESCOk 1984an. Urdaibai izena ere izendapenarekin batera hasi zen eza-gun egiten, ordura arte ingurukoek baizik ezagutzen ez zuten toponimo iluna baitzen, antzinako dorretxe bati zegokiona.

Alfonso Caño azpimarratu nahi izaten du bost urte geroago, EAEko Legebiltzarrak Urdaibaiko Erreserbaren Babeserako Legea onartu zuenean, aho batez egin zuela. Gernikarrak salatzen duenez, alderdi askoren jokabidea ez da izan, igaro diren hogeiturotuan, orduan emandako botoarekin koherentea. Datu bat: Urdaibairen izendapena egin zen garaian 100 Biosferaren Erreserba inguru zeuden munduan, gaur egun 500dik hurbil dago kopuru hori. Cañoaren esanetan, “inflazio horren azalpena da gobernu askok Biosferaren Erreserbetan aurkitu dutela ingurumenarekiko darabilten politika zikina zurtzeko aitzakia, eta hemen ere hala gertatu da. Hori da, hogeiturote eta gero, gure balortzioa”.

Txarto kudeatutako tresna egokia

Alde onak badira, noski. Argi geratu da erreportaje honen hasieran: Biosferaren Erreserba izendatu ez bazuten eta ondorengo legea egin ez bazen, honezkero Urdaibaik Castro Urdialesen edo Miarritzen antz handiagoa edukiko luke Urdaibairena baino. “Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidaria (EKEG) izeneko tresna eratorri zen legetik –diosku Caño–, eta tresna ona da, zehaztu egiten duelako hirigintzaren alorrean, Urdaibairen zentimetro koadro bakoitzean zer egin daitekeen eta zer ez, babes bereziko eremua izan edo ez izan”. Edozein landa-eremu hartzen du bere baitan EKEGek, hiriguneak dira salbuetsitako bakarrak. Horietatik kanpo gauzatu gura den edozein proiektu Urdaibaiko Patronatura igorri behar da lehenik, haren oniritzia jasotzeko. Sistemak arrakala ugari ditu, alabaina.

Alfonso Cañoaren ustez, Urdaibairen kudeaketak duen gabeziarik nabarmenetakoa bat Patronatuak zaintza zerbitzurik ez edu-



Mundaka, itsasadarren eskuin ibarretik egindako argazkia. Bertako olatu ospetsuaren desagerpenak dira Okan egiten diren dragatzeen ondorioz mediatikoen, baina inola ere ez larriena.

kitzea da. Ematen ditu txostenak, eta sarri askotan txosten lotesleak dira, baina gero inor ez da arduratzen erabakitakoa betetzen den behatzeaz. Hala, legez kanpoko eraikina egin izan dira Urdaibain, beste edonon bezala. Ageriko arrazoiengatik, Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakari ohiaren txaleta da adibide ezagunena, baina ez bakarra. Cañoren iritziz, orain dela 30 urte Urdaibai porlanez estali gura zuten haiek segitu dute euren egiten, apalago bada ere, han-hemenka. Eta kritika zorrotza egin dio alderdi jakin bati: “EAJ buru izan den udalerrri gehienak, denak esatea injustua delako beharbada, Erreserbaren kontra jokatu dute”. Udal gehienek oztopotzat dute EKEG, euren zabalkunde planak eragozten dizkielako

Gernikako Ekologia Lantaldea ez ezik, Urdaibairen eremuan lanean ari den beste talde ekologista garrantzitsua Zain Dezagun Urdaibai da. Bertako kide Erroxeli Ojinagak, Cañorekin bat eginez, higiezinaren negozioaren presioan ikusten du Urdaibairen aurkako mehatxurik handienetakoa: “Bitxia bada ere, Urdaibai Biosferaren Erreserba izateak abantaila bat eman die higiezinaren sustatzaileriei, garestiago saltzeko balio dien etiketa da. Eraiki izan da legez kanpo, eta are gehiago legearen bazterretan”.

Ojinagak dio gutxi gorabehera hamabost espediente daudela irekita momentu honetan. Ardanzaarena bakarrik ez, txalet ugari ere eraikuntzari buruzko auziak daude uneon epaitegietan aztergai. Kasu batzuetan proiektua ez da abiatu, bestetan bai. Handiena, Kanala inguruan –itsasadarren esku-mako ibarrean, Gautegiz-Arteaga udalerrian–, lehen multzokoa da ekologisten pozerako. 23 txalet, zein bere lur puska ederrarekin, “hirigunea sendotzeko” Udalaren argudioen arabera. Momentuz ekologistek

eman die arrazoia epaileak, orain ikusteko dago helegiteek nora daramaten afera.

Urdaibain, Biosferaren Erreserba guztietan bezala, ardatz biren inguruan ezartzen dira gestiorako irizpideak. Ingurumena da bata, arlo sozioekonomikoa bestea. Lehenbizikoari dagokionez, berebiziko garrantzia dute hiru gunek: artadiak, itsasadarreko padurek eta kostaldeak orobat. Hirurak daude babes bereziko gune izendatuta, arkeologia-aztarnategiekin batera. EAEtik kanpoko beste araudi batzuek ere eragiten dute; esaterako, Urdaibaiko ur-emari guztiak, errekarik txikieneraino, Europar Batasuneko babes bereziko sare batean daude kokatuta. Urdaibairen Legeak babesten dituen eremuak eurak ere nazioarteko edota Estatuko hitzarmenetatik jasotzen dute babes erantsia. Berme sendoa dagoela ematen du, eta hein batean hala da. Bitxia da talde ekologisten kritikek ikuspegi sozioekonomikoarekin zerikusi handiagoa daukatela naturaren kontserbazioarekin baino. Baina horrek ez du esan gura ingurumenarekikoak guztiz bare dabilzanik.

Jar dezagun arreta baso-kudeaketan, berbarako. Gune beltzenetakoa da Urdaibain, Alfonso Caño zein Erroxeli Ojinagaren ustetan. Artadiak arazorik ez, ondo gordeta daude, teoriarik praktikan bezala. “Ez daukate zurgintza sektorerako interes handirik, eta horri eskerrak”, nabaritu du Zain Dezagun Urdaibaikoak. Hortik kanpo, baso-politika ankerra dagoela salatzen dute ekologistek: pinua eta eukaliptoak landatzen dira nagusiki, mendiko pistak barra-barra eta irizpide argirik gabe zabaltzen dira... “*Baccharis*-a kentzea ondo dago [ikus *Berandu izan daiteke* erreportajea, ARGIAren 2168. zenbakian], baina pinu eta eukaliptoak ere inbaditzaileak dira nire ustez”, gaineratu du Ojinagak.

Urdaibairen Legeak, eta ondorioz Patro-natuaren sorrerak, ez zituen ezabatu aurrez zeuden eskumenak. Baso-kudeaketa Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, eta honela erantzun die kritikei bere prentsa-zerbitzuaren bitartez: “Garrantzitsua da bereizketa bat egitea: ondare-basoetan Aldundiak erabakitzen du zer landatu, eta erabilera publikoetan udalerriek. Aldundiak bertako zuhaitzak landatzeko gomendioa egiten du, nahiz eta orokorrean egokia den onura ekonomikoa ematen duten pinuen eta bertako zuhaitzien arteko oreka. Bestalde, Urdaibai eremuaren barruan, Sollube mendian, bada-go Aldundiarena den lur eremu bat, eukalipto duena, baina Aldundiak landaketa horrekin erosi zuen eta denbora gutxi barru, zuhaitzok ebakitzeko moduan izango dira eta espezie hostozabalak jarriko dituzte han. Pistei buruz, irizpide argiak, aproposak eta

Eta orain, Guggenheim

LANDER ARBELAIZ



Osaigai berria du azken hilabeteotan Urdaibaiko saltsa-maltsak: Bizkaiko Foru Aldundiak Sukarrietan Guggenheim Museo bat kokatzeko agertutako asmoa. Administrazioen arteko desadostasunen erakusle behinenetako bat, bide batez esateko. Kasu honetan, talde ekologistek barik, auzokideek hartu dute proiektuari aurre egiteko borrokaren bandera. Hain zuzen, Sukarrieta eta Busturia herrien artean dagoen Abiña auzoko elkarteak. Bertako presidente Jon Martinezek eman digu euren argudioen berri: "Hainbat arrazoiengatik ez gaude leku horretan museoa eraikitzearekin ados. Batetik, hor dagoen Ricardo Bastida arkitektoaren eraikina bota beharko luketelako, eta gure

ustez babestuta egon behar du, Bastidaren edozein lanek bezala, Bizkaiko arkitekturik esanguratsuenetakoa da eta. Bestetik, eraikin horretan eta haren inguruan dauden ume-koloniak betetzen duen funtzio sozialagatik. Eta ez dira arrazoi bakarrik".

Milaka bizkaitarrek azalpen gehiago barik ulertuko dute Martinezek esandakoa. Azken hamarkadetan, BBKren gizarte ekintza arloaren eskutik, Sukarrietako kolonietatik igaro diren milaka umeak dira. Udalekuen ardatza ingurumen-heziketa da, Biosferaren Erreserben helburuetako bat bidenabar. Lehenago, XX. mende hasieran, umeak hartzen zituen era berean Bastidaren eraikina. Ezkerraldeko meatzarien seme-alabak ziren, eta hantxe aurkitzen zuten gurasoen ondoan ez zeukatena: naturarekiko harremana, giro euskalduna eta egunean hiru otordu.

Argudio sozial-historikoei ingurumenari lotuagok ere erantsi dizkiete Guggenheim 2 egitasmoaren aurka azaldu diren batzuek, auzokide nahiz kanpoko: kostatik hurbilegi egotea, besteak beste. Aldundiari gai honetaz egin dizkiogun itaunak, berri, erantzuteke geratu dira.

ingurumenarekin eta baso kudeaketarekin bat datozen baldintzak zorrotz jarraitzen dira, jende oso aditua dago horretan lanean".

Aldundiak datuz hornitu du erantzuna. Adierazi digutenez, Urdaibaiko Erreserban 1.000 hektarea inguru estaltzen dute zuhaiztiak. Horien %58 espezie hostozabalenak dira (arteak, pagoak, hari-tzak...), eta gainerakoa konifero-enak. Insignis pinuek eta eukaliptoek, hain juxtu, zuhaizti guztien %18 eta %6 betetzen dute, hurrenez hurren.

Bide batez esan dezagun Bizkaiko Aldundia izan dela ARGIAK egindako informazio-eskariei erantzun dion erakunde publiko bakarra, eta ez galdetutako arlo guztiez. Jaurlaritzak, eta haren bidez Patronatuak, ez diete gure deiei men egin.

Dragatzearen ondorioak

Patronatuko langilea da Manu Monge geologoa hain zuzen, baina argi utzi digu ez duela gurekin haren izenean berba egingo. Mongek Okako estuarioko sedimentuen gaineko azterketa egin du bere doktorego-tesian, eta horretaz baino ez zaigu mintzatu. Laburtuz, hauek dira haren lanaren ondorio

nagusiak: batetik, itsasadarra bere kapazitatea galtzen ari da gizakion jardueraren erruz. Marea-arteko eremuaren zati handi bat lehortu egin zen XX. mende erdian, nekazaritzaren mesedetan. Gerora, lehorte horiek bertan behera utzi eta itsasoak zati bat berreskuratu du, baina ez dena. Horre-

tarako, kendu beharko lirateke oraindik ere itsasadarraren gorako mareak mugarik gabe zabal-tzeko dituen oztopo guztiak: hesiak, muino artifizialak...

Bestetik, Okan ohikoak diren dragatzeek kalte egite diote sistemen orekari, eta ez Munda-kako olatuari bakarrik, nahiz eta horretaz gehiago hitz egiten den. Muruetako ontziolan ekoizten dituzten ontziak itsasoratu ahal izateko egiten dira dragatzeok. Sakonera handitzen da, azken batean. Baina Mongeren lantal-

deak behatu duenez, itsasadarraren hondok oso denbora laburrean berreskuratzen du galdutakoa. Are gehiago, dragatzearekin galdutako maila berreskuratzeaz konformatu ez eta handik gutxira lehen baino gorago egoten da. Bere tesien ondorioetan, dragatze-lanak, eta baita haien sakonera ere, ahalik eta gehien murriztea gomenda-

"Orain dela 30 urte Urdaibai osoa urbanizatu gura zuten haiek segitzen dute eurena egiten, apalago bada ere, han-hemenka"

Alfonso Caño
(Gernikako Ekologia Lantaldea)



LANDER ARBELAITZ

Oka itsasadarraren ikuspegi bat. Urrunean Oiz mendia ikus daiteke; ezkerrean, babestutako zenbait artadi.

tzen du Mongek, idealena bat ere ez egitea litzatekeela gogoratu ostean.

Aipatutako ondorioei beste bat gaineratu beharko: dragatzeak hondoa astintzen du, eta han pilatutako metal astunei berriz igoarazi, horrek bertako espeziei dakartzkien kalteak eta guzti. Hori bai, dragatzeak metalak mugitzen ditu, baina horiek beste nonbaitetik iritsi dira. Harrigarria da, baina Euskal Herriko urik kutsatuenetakoak Urdaibain topa daitezke. Oraindik lanean dirauten Gernikako eta inguruko zenbait industriatan dago poluzio horren jatorria. Ardurak banatze aldera, zera dio Alfonso Cañok: “Enpresa horiei ez zaie diru-laguntzarik ematen euren jarduera kutsatzailea eteteko planak garatu ditzaten”. Berriz ikuspuntu sozioekonomikoa mahai gainean. Izan ere, Biosferaren Erreserba baten gakoetako bat da herritarrei ordainak ematea, euren jarduerekin ingurumenari kalte ez egitearen truke. Urdaibain ez da halakorik egiten, salatu du Cañok, eta hori dateke Erreserbarean gabeziarik handiena.

Arduradun berrien erronka latza

Lasaitasuna da nagusi Urdaibaiko txoko bazterretan, ez ordea haren kudeaketa egiten den bulegoetan. Eskualdearen garapen

**Urdaibai garapen
sozioekonomikorako plan barik
dago gaur egun, orain dela
hamaika urtekoak porrot egin
ostean; urte hasieran orduko
Jaurlaritzako kideek aurkeztu
zutena tiradera batean gelditu
da, ez baita Ingurumen Saileko
kide berrien gustuko**

sozioekonomikoa zehaztu behar duen plana, euskaraz JSEGE siglak dituen, egiteke dago, duela hamaika urte abian jarritakoak porrot egin ostean. Hala, ez dago plan zehatzik legearen arimatik harago. Hobeto esanda, badago, baina tiraderan gordeta. Urte hasieran aurkeztu zuten orduan ardura zutenek; PSEren gobernua ailegatzearekin, harenak egin du: ez da Ingurumen Saileko kide berrien gustuko. Bestetik, Patronatuak Jaurlaritzarekiko dependentzia handiegia izatea

salatzen dute ekologistek. Orain, gainera, buru faltan dabil; urtebete baino gehiago da zuzendaririk gabe ari dela lanean. Den-dena, Erroxeli Ojinagaren berbetan, tokian tokiko administrazioen arteko liskar giro etengabea, Aldundiaren eta Jaurlaritzaren artekoa batik bat. Panorama horixe aurkitu du German Alonsok, EAEko gobernu berriak izendatu duen Biodibertsitate Zuzendari eta, hortaz, Erreserbaren arduradun politikoko nagusietakoak. Ez da harritzekoa “Urdaibain giro apala” aurkitu duela adierazi izana Espainiako

Estatuko egunkari bati, guri ezean. Gainerakoan, Jaurlaritza osoan momentuz nagusi den zuhurtzia mintzo da haren ahotik. Alfonso Cañok alderdi on bat ikusten dio behintzat German Alonsori: primeran eza gutzen du Urdaibai, eta aspalditik gainera. Hori eta gehiago beharko du. ■